KRITIKA IBON EGAÑA

Amodio komunisten lanak

TITULUA: **'ERLE LANGILEEN AMODIOAK'** EGILEA: **ALEKSANDRA KOLLONTAI** ARGITALETXEA: **EREIN**

1923an eman zituen argitara Aleksandra Kollontaik *Erle langileen amodioak* bilduma osatzen duten hiru kontakizunak, eta baita beste hainbat fikziozko lan ere. Liburuari egindako hitzaurre jakingarrian Aroa Uharte itzultzaileak gogorarazten digunez, iraultza osteko Errusian aski ezagunak ziren Kollontaik "emakumearen auziaz" eta "emakume berria"ren inguruan egindako teorizazioak eta saiakera-lanak. Jendarte komunista berrian gizon-emakumeen arteko harremanak nolakoak izan behar luketen sakon hausnartua zuen iraultzaileak zergatik jo ote zuen, baina, fikziora noiz eta sistema egituratu berriak atzerrira, diplomazialari lanetara bidali zuenean? Uhartek Tatiana Osipovitx aipatuz dioenez, gatazka psikologikoak hausnartzeko egokiagoa zitzaion fikziozko prosa Kollontairi entseguaren forma baino, eta era berean buruan zituen hartzaileengana heltzeko bide neurrikoagoa zitzaion.

"Ideien idazle" izan nahi zuela utzi zuen idatzita San Petersburgon jaiotako marxistak, eta ezbairik gabe 'continuum' argia dago bere fikziozko lanen eta testu hertsiki politikoen artean. Esan nahi baita, jendarte komunista batean emakumeen lekuak zein izan behar lukeen, gizon eta emakume kamaraden arteko harreman batek zein forma behar lukeen gogoetatzen du narrazio hauetan ere Kollontaik. Begi bistakoa egiten da, alde horretatik, bere fikzioaren asmo didaktikoa, bereziki bilduma honetako bi narrazio laburretan, *Amodioa hiru belaunalditan* eta *Ahizpak* izenekoetan. Batean zein bestean, lehen pertsonako narratzaileari dilema moral bana jakinarazten diote emakume banak: harreman ez-monogamoak dituen alaba gaztearena haren amak, prostituta batekin harremanak dituen kamaradarena haren neska-lagunak. Moral burgesak erraz ebatziko lituzke ezbai horiek, erruaren, zigorraren edo hipokrisiaren bidez; baina konplexuagoak dira erantzunak komunismotik erantzun nahi zaienean. Hala ez badirudi ere, gaurkotasun handiko galderak suertatzen dira horietako asko, ia ehun urte beranduago irakurrita.

Narrazio labur horien aldean, garapen eta sakontasun handiagokoa da *Vasilisa Malygina* nobela, bilduma honetako hirugarren kontakizuna. Badu amodiozko nobelatik Vasilisa eta Vladimirren istorioak, eta izan lezake XIX. mendeko adulterio-nobelen tradizioaren arrastorik ere; alabaina, iraultzaile komunista ere badiren gizon-emakume horien artekoak beste dimentsio bat hartzen du. Beren arteko jokabideetan ideiak eta sentimenduak maiz kontraesanean daude, ebazten erraza ez den tentsio bat dago nobela osoan zehar moral komunistaren eta sentimenduen artean, ideien eta psikologiaren artean, eta horrek egiten du gaiez harantzago ere literatura-lan gisa interesgarri, fikzioan trinkotzen direlako diskurtso askotarikoak (emozioekin lotuak, klase sozial desberdinenak, iraultzarenak, eta abar). Hori egitean, gainera, errotik aldatzen ari den gizarte bati hartzen dio pultsua Kollontaik, asmo iraultzaileari atxiki eta ahizpatasun komunistari dei egiten dion arren iraultzaren itzalei ere (burokratizazioa, pribilegio berriak, lehengoan dirauten jokaera matxistak) erreparatuz.

Merezi du aipamentxo bat errusieratik euskarara egindako itzulpen-lan ederrak, liburuari gaurkotasuna eta hurbiltasuna ematen asmatu baitu Uhartek, baita narrazioetan gurutzatzen diren erregistro eta ñabardura ugariak euskaraz jartzen ere.



Hala ez badirudi ere, gaurkotasun handiko galderak suertatzen dira horietako asko, ia ehun urte beranduago irakurrita

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Neskamearen ipuina**
Margaret Atwood. Txalaparta.
2. **Htz(a)mrk I**
Askoren artean. Autoedizioa.
3. **Suak pizten direnean**
Mikel Soto. Elkar.
4. **Kontu pribatu bat**
Beppe Fenoglio. Katakrak.
5. **Miñan**
A. Arzallus, I. Balde. Susa.
6. **Sofia Petrova**
Lidia Txukovskaia. Katakrak.

Ez Fikzioa

1. **Gure historia da etor...**
Nick Estes. Katakrak.
2. **Sed Quia Sua**
Iñaki Segurola. Erein.
3. **Dendaostekoak**
Uxue Alberdi. Susa.
4. **Erbesteko gutunak Victor Hugori**
Louise Michel. Katakrak. Elkar.
5. **Gauzak direna balira**
Joseba Sarrionandia. Pamiela.
6. **Trikua esnatu da**
Lorea Agirre, Idurre Eskisabel. Susa.

ITURRIA: Katakrak.

ERAKUSLEIHOA

NARRATIBA

'Bizitzak'

Koldo Alijostes. Pamiela.
192 or. 15 euro

Gure arbasoen historia, ebxez ebxe

Kontaketa honen guztiaren ardatza idazlearen aita eta amaren bizitza da. Etxean, mahai inguruan, beraiei aditutakoak dira istorio gehienak. Zenbaitetan, beraien hitz zehatzak jarri ditu, grabatu bezalaxe zuzenagoak eta biziagoak direlako. Aitaren izaera zela-eta, haren bizitzaren inguruko pasadizoak dira luze-zabalenak, seguru aski bizitzan ekintzaile jokatu zuelako eta zoriak zenbait esperientzia berezi biziarazi zizkiolako. Ama, etxera begira bizi izan da, eta bere kontaketak ikusgarriak ez diren arren, ez dira garrantzi gutxiagokoak.

POESIA

'Nola gorde errautsa kolkoan'

Miren Agur Meabe. Susa.
184 or. 18 euro.

Letraz jositako triptikoari amaiera emanez

Izenburu alegoriko bezain ironikoa dauka Miren Agur Meaberen poesia liburu berriak, zeinetan azken hamarkadan idatzitako poemak biltzen dituen. Bizitzaren joanean, kolkoa zera bihurtu zaigu, iraganaren errautsak gordetzeko urna moduko bat. Baina ez da erraza errautsa aldean erabiltzea begietan azkurarik igarri, azala zikindu edota eztulik egin gabe. Triptiko bat osatzen du, idazlearen hitzetan, 'Kristalezko begi bat' eta 'Hezurren erretura' lanekin batera. Poemen aniztasun horren barruan, estilizazioa, barrokismoa, abstraktzioa sartu ditu.

ZALDI EROA